



**Abadiño**

Elizateko Udala



**Kultura Arloa**  
Área de Cultura

## BALDINTZA OROKORRAK

### **ABADIÑOKO SAN BLAS AZOKA 2020**

Hona hemen saltzaileek bete beharreko baldintzak:

#### Kartelak:

- a. Era guztietako kartelak: ezinbestekoa da gutxienez **EUSKERAZ** egotea. Karteleko testuak edo errotuluak euskeratzeko laguntza behar badozu Euskera Zerbitzuan jasoko dozu (urtarrilaren 10a baino lehenago).
- b. Beste azoka batzuetan lortutako sarien kartelak: bakarrik ipini ahal izango dira baldin urtarrilaren 10a baino lehen frogatzen bada, dokumentu bidez, benetakoak direla.

**Arau orokorra:** Saltegian bakarrik saldu ahal izango dira Azokako Antolatzaileek baimendutako gaiak:

**-ORTUARI, FRUTA ETA BARAZKI SALTEGIAK:** Bakarrik saldu ahal izango dira ortuariak, frutak eta barazkiak.

**-EZTI SALTEGIAK:** Bakarrik saldu ahal izango da Euskal Labela dauken eztiak, ezti ekologikoa **edo BAMEPErekin** (*Baskoniar mendebaldeko erlezain profesionalen elkarte*) **lotutako ustiapenetan** ekoiztutakoa. Ezingo da saltegian jarri ez saldu eztiaren deribaturik (kremak, lozinoak, ukenduak, kosmetikako gaiak, eta abar). Era horretako gaiak saltzeko legeak agintzen dituen tratamenduak eta araututako etiketak behar dira.

## CONDICIONES GENERALES

### **FERIA DE SAN BLAS DE ABADIÑO 2020**

Las condiciones que deben cumplir los expositores son las siguientes:

#### Carteles:

- a. Carteles de todo tipo: es requisito indispensable que estén elaborados al menos en **EUSKERA**. Para confeccionar los rótulos o los textos de los carteles en euskera puede solicitarse ayuda en el Servicio de Euskera (antes del 10 de enero).
- b. Carteles sobre premios obtenidos en otras ferias: se autorizará su colocación sólo si se acredita documentalmente su veracidad antes del día 10 de enero.

**Regla general:** el expositor sólo puede vender los productos autorizados por la Organización de la Feria:

**\*PUESTOS DE HORTALIZAS, FRUTAS Y VERDURAS:** se autoriza exclusivamente la venta de hortalizas, frutas y verduras.

**\*PUESTO DE MIEL:** sólo se podrá expender miel amparada por el Label Vasco de Calidad, miel ecológica o la producida en explotaciones asociadas a **BAMEPE** (*Baskoniar mendebaldeko erlezain profesionalen elkarte*). No se permitirá la exposición y venta de productos derivados (cremas, lociones, ungüentos, aplicaciones cosméticas, etc). La comercialización de estos productos implica los preceptivos tratamientos legales y su consiguiente etiquetado normalizado.



# Abadiño

Elizateko Udala



Kultura Arloa  
Área de Cultura

**-TXAKOLIN SALTEGIAK:** Bakarrik saldu ahal izango da Bizkaiko Txakolina jatorrizko deiturako txakolina. Botila guztiek behar bezala etiketatuta egongo dira, baktxari dagokion kontraetiketa eta guzti.

**-SAGARDO SALTEGIAK:** bakarrik saldu ahal izango da Bizkaiko Sagardogile Alkarteko kideek ekoiztutako sagardoa. Botila guztiek behar bezala etiketatuta egon beharko dira.

**-GAZTAI SALTEGIAK:** **Idiazabal Jatorri Izenak** babestutako ardi-esnez egindako gazta baino ezin izango da saldu, edota ekoizlea **Artzai-Gaztako** bazkidea bada. Era berean, bere jatorria bermatzen duen etiketa izango du.

Halaber, behi edota ahuntz esnez egindako gazta saldu ahalko da erakusketan, baina ekoizleak erregistratutako bere ustiategian egindakoa bada eta bere jatorria bermatzen duen etiketa izango du.

Gazta pieza osotan eta dagokion etiketarekin salduko da, edo bestela, zatituta izatera, hutsean ontziratua eta bilgarri itxiaren barruan proportzioz dagokion etiketazatia agerian.

**-ESNEKI SALTEGIAK:** ezin izango da saldu, ondo erakusteko hotz tenperatura behar dituzten esne edo esnekirik: gazta freskoak, gatzatuak, gaztanberak eta abar. Bai ordea saldu ahal izango dira guztiz ontziturik badaude eta saltokiak eduki nahikodun **hozkailea eta hotz-erakustokia** baldin badute. Era berean, ezin izango dira zatitu produktu horiek.

Saltokirainoko garraioa **ibilgailu isoterma** egokian egin beharko da.

Kasu guztietan holako salgaiak bakoitza bere **etiketarekin** egongo dira legezko araudiaren arabera.

Horretariko produktuak merkaturatzen dituztenek euren **abere-ustategia eta lantegi erregistratua, bidezko osasun-baimenarekin** eduki beharko dituzte.

**\*PUESTO DE TXAKOLI:** solamente se podrá expender txakolí amparado por la Denominación de Origen Bizkaiko Txakolina. Todas las botellas deberán estar debidamente etiquetadas y con su correspondiente contraetiqueta.

**\*PUESTO DE SIDRA:** únicamente se podrá expender sidra proveniente de productores integrados en la Asociación de Sidreros de Bizkaia. Todas las botellas deberán estar debidamente etiquetadas.

**\*PUESTO DE QUESO:** sólo se expenderá queso elaborado con leche de oveja amparado por **La Denominación de Origen Idiazabal** y/ó que el productor sea socio de **Artzai-Gazta**. Contará con el etiquetado que garantiza su origen.

Asimismo, podrá expenderse queso elaborado con leche de vaca y/ ó de cabra que haya sido elaborado por el productor, en el obrador registrado de su explotación y contará con el etiquetado que garantiza su origen.

El queso se expenderá por piezas enteras y con su correspondiente etiqueta ó fraccionado y envasado al vacío, visualizándose en el interior del envase la parte proporcional de la etiqueta.

**\*PUESTOS DE LACTEOS:** no se permitirá la venta de leche o de productos lácteos que necesiten, para su correcta exposición, temperaturas de refrigeración (quesos frescos, cuajadas, requesones, etc.) salvo que estén íntegramente envasados, y que el módulo de venta cuente con **cámara y expositor frigorífico** con capacidad suficiente. Igualmente se prohíbe el fraccionamiento de estos productos.

El transporte hasta el puesto deberá realizarse en un **vehículo isoterma** adecuado.

En todos los casos este tipo de artículos estará **etiquetado** según la normativa legal.

Quienes comercialicen estos productos dispondrán necesariamente de una **explotación ganadera y de un obrador registrado con la oportuna autorización sanitaria**.



# Abadiño

Elizateko Udala



Kultura Arloa  
Área de Cultura

**-OGI SALTEGIAK:** Ezingo da saldu enbasatu bako eta etiketa gabeko ogirik, halan agintzen dau-eta indarrean dagoen legeriak. Euskal Pastela dalakoa unidateka saldu ahal izango da –inolaz ez zatika–, baldin enbasatuta eta etiketatuta badago.

**-ZETAZINA ETA TXARKUTERIA SALTEGIAK:** Era honetako gaiak saldu ahal izateko, norberaren nekazal esplotazioan okelagai hauek ekoizteko baimena emoten daben Osasun Erregistroaren jabe izan behar da. Kasu guztietan, egoki enbasatuta eta etiketatuta egon beharko dira.

**Azokako Antolatzaileek zorrotz zainduko dabe goiko arau guztiak ondo betetan direla eta betetan ez dituenak galazota izango dau azokara etortea hurrengo urteetan.**

**Azokarako sartu-urtenak:** Saltzaileek Antolatzaileak esandako lekuetan ipiniko dabez euren saltegiak **goizeko 9etarako** eta ordu horretarako azoka gunetik atarata euko dabez auto guztiak. **Azokalekurako sarbidea goizeko 8:30etan zarratuko da;** ordu horretatik aurrera ez jako itxiko inori autorik sartzen eta bete barik dagozan saltegiak Antolaketa Batzordeak beretuko ditu.

**Saltegiei ezingo jake egin ezelango aldaketarik (ez handitu, ez untzeak josi, etabar), eta ezingo da lekurik okupatu saltegitik kanpora, azokako Antolatzaileek kontrakoa erabaki ezik.**

**\*PUESTOS DE PAN:** queda prohibida la venta de pan no envasado y sin etiqueta por así establecerlo la legislación vigente. Se podrá expender el denominado Pastel Vasco por unidades, siempre que esté envasado y etiquetado, sin opción al fraccionamiento.

**\*PUESTO DE CHACINAS:** solamente la acreditación del Registro Sanitario para la fabricación de productos cárnicos en la propia explotación agraria, autoriza la venta de estos productos, que deberán estar debidamente envasados y etiquetados.

**La Organización efectuará un seguimiento de estas condiciones, cuyo incumplimiento supondrá la exclusión para próximas ferias.**

**Acceso al recinto de la Feria:** se respetarán los puestos asignados por la Organización, y los puestos deberán estar todos montados para **las 9 de la mañana** y retirados los vehículos del recinto ferial; **el acceso se cerrará a las 8:30**, y no se permitirá la entrada de ningún vehículo más, y el puesto no ocupado se adjudicará por la Organización.

**No se permite efectuar ninguna modificación de los puestos (ampliaciones, clavar, etc), ni invadir espacios externos del puesto, salvo que la Organización así lo decida.**

ANTOLATZAILEEK

LA ORGANIZACIÓN